

**XEDAPENA, 2023KO MARTXOAREN 27KOA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEARENA. XEDAPEN HONEN BIDEZ ONARTZEN DA LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZAERA LORTZEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA, ADMINISTRARIAREN KATEGORIAN, OSATEK-EN DESTINOA IZANIK.**

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, OSATEKen destinoa duten administrariaren kategorian.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, zuzendari kudeatzaileak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

**Lehenengoa:** Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, baztertzeko-arrazoia adierazita, hala badagokio. Zerrenda hori xedapen honen eranskinetan dago.

**Bigarrena:** Xedapen hau OSATEK-en webgunean ([www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/)) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratzeko agintzea.

**Hirugarrena:** 5 egun balioduneko epea ematea zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko, Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileari bidalitako idazki baten bidez, edo helbide elektroniko honetara: [ad6463osatek@campo-ochandiano.com](mailto:ad6463osatek@campo-ochandiano.com); edo posta arruntez: OSATEK, S.A., Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 40011, Bilbao.

Bilbon, 2023ko martxoaren 27an

  
Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz